

PROBAKETAK 2013, KATA GIDATUAK SAGARDOTEGIETAN

Berrikuntza ugari Sagardoaren Lurraldeak antolaturiko probaketen IV. edizioaren hasieran. Aurtun, familiei (guraso eta seme-alabei) zuzenduriko dastaketa bereziak, afariekin uztartu ahal izango diren sagardozaleentzako dastaketak eta maridaje gastronomikoak izango dira.



Egutegia:

Probaketak otsailean hasiko dira Astigarragako **Zapiain sagardotegian** eta egun hauetan izango dira: **otsailak 16, otsailak 23 eta martxoak 2**. Dastaketak Egoitz Zapiain-ek gidatuko ditu eta aurtengo Zapiain-go eskaintza sagardoa dastatzen ikasi nahi duten guraso eta seme-alaba eta sagardozaleei zuzendua dago.

Zapiaingo dastaketa gidatua eta pintxoaren prezioa 10€koa da helduentzako eta dohakoa gurasoez lagunduriko 18-25 urteko gazteentzako.

Martxoan probaketak Hernaniko Zelaia sagardotegian, Astigarragako Gurutzeta sagardotegian eta Usurbilgo Saizar sagardotegian ospatuko dira, apirilean Azkaineko Txopinondo sagardotegian eta Andoaingo Gaztañaga sagardotegian eta maiatzean Astigarragako Bereziartua sagardotegian.

Hilabetero proposamenak eta probaketen datak **www.sagardoarenlurraldea.com** orrialdean argitaratuko ditugu

Informazioa eta izen-emateak:

Sagardoaren Lurraldea
Telf: +34 943 550 575
e-mail: info@sagardoarenlurraldea.com